

# PEREIRAKO ADIERAZPENA

## SEXU LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO LEHEN GOI BILERAREN TESTUINGURUAN AURKEZTUTAKO MANIFESTUA

Sexu langileok, borrokarako eragile eta gaitasun politikoa dugun subjektu gisa, honako manifestu hau garatu dugu Sexu Langileen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Goi Bileran, Kolonbiako Pereira hirian, 2025eko abenduaren 16an, 17an eta 18an. Gainera, data horiek Sexu Langileen Aurkako Indarkeria Amaidzeko Nazioarteko Egunarekin bat egiten dute, urtero abenduaren 17an ospatzen baita egun hori.

Lehenik eta behin, nazioarteko egoera politikoaren irakurketa egin nahi dugu:

1. Hainbat genozidio gertatzen ari diren Palestina, Kongo edo Sudan bezalako lurraldeetan; bertako populazioa mutilatua, suntsitua eta lekualdatua izaten ari da, eta euren ondasunak kentzen ari zaizkie, Mendebaldeko gobernuen, nazioarteko erakunde politikoaren eta munduko elite ekonomikoaren konplizitatearekin eta zigorgabetasunarekin.
2. Ultraeskuinaren aurrerapena berresten ari da, gobernu kontserbadore, faxista eta neoliberalen bidez. Migrazioaren aurkako politikak eta eskubide zibilen murrizketak sustatzen dituzte gobernu horiek, eta gorrotoa zabaltzen dute diskurtso arrazista, xenofobo, transfobo eta misoginoen bidez.
3. Gizarteak pentsamendu kapitalista neoliberalaren arabera antolatzen dira, zeinetan botere ekonomikoak pertsonen existentziarako aukerak definitzen dituen. Indibidualismoa eta aberastasuna goratzen eta bizitzako helburu gisa ezartzen dira, eta pobrezia eta kolektibitatearen aurkako gerra sustatzen da meritokraziaren mitoaren bidez: *aberastu zaitez zu zeu* ideia bidez eta langileen arteko elkartasunaren desagitearen bidez.
4. Euren burua ezkertzat dutenak formula politiko bigunetan erortzen dira, eta ez dute lortzen herritar zaugarrienen eta estigmatizatuenean bizitzetan sakoneko eraldaketa materialak ekarriko dituen agenda eraginkorrik ezartzea. Horixe gertatzen da sexu langileen borrokaekin ere: sarritan, ezkerak instrumentalizatu egiten gaitu, benetako konpromisorik hartu gabe, nahiz eta hauteskundeetan gure babesa espero duten.

Testuinguru horretan kokatzen da abolizionismoaren aldeko ikuspegiaren hedapena sexu lana lantzeko ikuspegi nagusi gisa, bai esparru politikoetan, bai mugimendu sozialetan.

Sexu lana oraindik ez da lan gisa aitortzen herrialde gehienetan. Ia herrialde guztietan legeak eta arauak dituzte, zuzenean edo zeharka kriminalizatzen dutenak. Horrek oinarritzko eskubide sozialak eta laboralak eskuratzea eragozten du, lankideen arteko elkartasuna apurtzen du eta eragozten zailak diren indarkeria zikloetan murgiltzen gaitu.

Batzuetan ukatu arren, eskuinaren zein ezkeraren agenda politikoetan txertatu da abolizionismoa, sexu lanaren gaineko ikuspegi moralista, higienista eta zigortzailea duen eta gorputzaren eta sexualitatearen kontzeptio sakralizatuetan oinarritzen dena.

Feminismoaren izenean, sexu lana egiten duten pertsonak biktima kategoriara mugatu dira, eta, horrela, sexu lana bizimodu gisa hautatzeko duten agentzia oro ukatu zaie.

*Erreskate industriak* etekina ateratzen du biktimizazio politiketatik, giza salerosketaren eta sexu lanaren arteko nahasketak elikatuta. Era berean, sexuaren industriako enpresariak eta proxenetismoak ere ateratzen dute etekina, lan babesik ezak ahalbidetzen duen egoeraz baliatzen baitira sexu langileei haien mesederako baino izango ez diren baldintzak inposatzeko.

Horrela, feminismo abolizionista zurien nagusitasunaren beste tresna bat bihurtzen da, salbazionismoaren, karitatearen eta kolonialismoaren egiturak erreproduzitzen dituena. Ukatu egiten da bestetasuna, edo besteak erabakiak hartzeko gai diren subjektu baliodun bezala hartzea.

Hala ere, aurrez aipatutako egoeraz eta mundu osoan sexu langileen eta haien erakundeen aurkako etengabeko erasoez harago, aitortu beharra dago mugimenduak nazioarte mailan garaipen garrantzitsuak lortu dituela, eta horrek jurisdikzio batzuetan sexu langileen egoerari hobekuntzak ekarri dizkiola. Izan ere, batzuei mina egin arren, sexu langileok gure eskubideak aitortzen dituzten arau esparruak onartzea lortu dugu, eta baita eskubide horiek bermatzeko politika publikoak eta instituzioak ere.

Instituzionaltasunetik harago, sexu langileok komunitate mailan *puta* elkarteen sendotzea lortu dugu, lankideen arteko elkartasun sareen bidez, aliatuen bidez, auzo komunitateen bidez eta sexu-langileen eta haien familien sare afektiboaren bidez.

Elkarlaguntzako sare horiei esker, sexu langileok erresistitu ahal izan dugu, baita egoera politiko kaltegarrienen aurrean ere.

Erresistentzia horiek ez dira berriak, sexu langileok, zeharka eta modu transbertsalean, beti egon baikara hainbat mugimendu sozialetan, eta, ekintza zuzenaren, jardun sindikalaren eta pertsona eta herri zapalduen aldeko elkartasunaren bidez, ehun sozial iraultzailearen funtsezko parte izan gara.

Adierazitakoaren aurrean, hemen bildutako sexu langileok **ESKATZEN DUGU**:

1. Sexu lana lan gisa aitortzea.
2. Kriminalizazio eta estigmatizazio instituzional oro berehala etetea.
3. Migrazio egoeraren kriminalizazioa amaitzea eta migratzaileak eskubide osoko subjektu gisa aitortzea.
4. Sexu langileen familien suntsiketa etetea, seme-alaben zaintza kentzearen bidez egiten dena.
5. Osasun integralera sarbidea izatea.
6. Edozein motatako langileei bermatzen zaien babes sozial bera bermatzea.

Goi bilera honen printzipio argi eta negoziatuetan oinarritzen den horizonte politiko komuna berresten dugu. Feminismoa eta transfeminismoa dira gure marko politikoa: trans kideak, identitate ez-binarioak eta disidentzia guztiak borroka honen parte integrala dira,

hierarkiarik eta bereizketarik gabe. Gure klasea bakarra da, eta ez du mugarik aitortzen; borroka internazionalista, antikapitalista, antiinperialista, antirrazista eta antikoloniala gara.

Europako politika batzuek kolonialitatearen logikak erreproduzitzen jarraitzen dute, eta, horren aurrean, beharrezkoa da Abya Yalako eta Latinoamerikako lurraldeei erreparazioa emateko prozesuak bultzatzea, bai historikoki gure bizitzen, gure gorputzen eta gure lurraldeen aurka egindako indarkeriengatik eta baita gaur egungoengatik ere. Klase eta genero gerra batean gaude, eta sexu langileok lehen lerroan gaude. Ez gara berez zaugarriak: zaugarritasuna egitura politiko, sozial, kultural eta ekonomiko zapaltzaileek sortzen dute. Bizitzaren eta heriotzaren arteko borroka da hau, eta horregatik lurralde guztietan izendatzen eta salatzen ditugu heriotza, gorroto delituak eta poliziaren indarkeria.

Gure borrokaren, gure historiaren eta puta kontzientzia kolektiboaren aitortza osoa aldarrikatzen dugu. Sexu lanaren memoria berreskuratzea eskatzen dugu, gure lana ukatua izan den testuinguruetan baliozkotzeko, gogoraraziz kultura askotan sexu lana historikoki aitortua izan dela. Puta jakintzaren existentzia ezagutza legitimo gisa baieztatzen dugu: plazera, esperientzia eta sexu lanaren berezko jakintzak gizartearentzat balio handiko ezagutzak dira. Omenaldiak eskatzen ditugu bizirik gauden bitartean, eta ez jada hemen ez gaudenean. Eta, halaber, gure aurretik bidea ireki zutenen aitortza eskatzen dugu.

Konpromisoa hartzen dugu kideen izenak ez ahazteko, eta puta memoria ekintza politiko gisa sostengatzeko. Erreparazio historikoa eskatzen dugu, bereziki indarkeria instituzionala, soziala eta poliziala pairatu duten adineko pertsonentzat, eta baita askatasunik gabe dauden kideen eta biziraupenerako estrategien ondorioz espetxeratu dituztenen aitortza ere.

Sexu lanaren erabateko diskriminalizazioa eskatzen dugu, eta nahita egiten den pertsonen salerosketaren eta sexu lanaren arteko nahasketa berehala amaitu dadila. Eredu nordikoa eta haren adierazpen guztiak irmoki baztertzen ditugu. Erregistroa egiteko eskubidea defendatzen dugu, baina norberak hala erabakitzen badu bakarrik; inoiz ez eskubideak eskuratzeko derrigorrezko baldintza gisa. Gure ofizioen inguruko epai moralak amaitzea eta estigmatizazio sozial eta instituzionalaren bukaera eskatzen dugu. Berresten dugu legeak gurekin eta guretzat eraiki behar direla: ez dadila guri buruzko ezer erabaki gure parte hartzerik gabe.

Bizitza duin eta oso baterako eskubidea aldarrikatzen dugu, eta sarbide errealak pentsioetara eta jubilazioetara, eufemismorik eta ezabaketarik gabe. Osasun integrala eskatzen dugu, osasun fisikoa eta mentala barne, baita sexu hezkuntza integraleko programak ere.

Berresten dugu GIB (Giza Immunoeskasiaren Birusa) hautemanezina transmitiezinaren parekoa dela, eta seropositiboan aurkako estigmaren amaiera eta arreta integralerako sarbidea eskatzen ditugu. Neurodibergentzien aitortza eta laguntzak jasotzerakoan diskriminaziorik ez izatea eskatzen dugu, baita antikapazitismoa printzipio politiko eta politika publiko gisa ere. Etxebizitza planak exijitzen ditugu, negoziatzina den eskubidea baita etxebizitza, baita gainerako eskubide guztiak posible egiten dituen baldintza ere.

Hezkuntza askea, teknikoa eta unibertsitarioa eskatzen dugu, diskriminaziorik gabekoa, autonomiarako tresna gisa ulertuta, eta ez gure erabakiak zuzentzeko mekanismo gisa.

Historikoki bazterrean geratu direnak izendatzen ditugu eta erdigunean jartzzen ditugu. Paperik gabeko migratzaileek zaurgarritasun handiagoa eta abusuak jasateko arrisku handiagoa pairatzen dute; horregatik, bermeak eta babes integrala eskatzen ditugu. Kale-egoeran bizi diren pertsonak ere barne hartzen ditugu, baldintza muturrekoetan ere beren bizitza sostengatzen dutenak; baita kontsumo problematikoetan dauden kideak ere. Haientzat arriskuak murrizteko politikak eskatzen ditugu. Benetako inklusioa eskatzen dugu desgaitasuna duten sexu langileentzat, eskubideen aitortza eta bermeak sexu lana egiten duten presoentzat eta eskubideak eta erreparazioa eskuratzeko bidean lehentasuna adineko eta pobretutako kideentzat.

Herrialde guztietako indarkeria instituzionala eta poliziala salatzen ditugu, eta polizia egitura zapaltzaile eta erasotzaile gisa izendatzen dugu. Gorroto-krimenak eta polizia-indarkeria zigorrik gabe gera ez daitezzen eskatzen dugu, eta justiziarako sarbidea aldarrikatzen dugu oztoporik eta birbiktimizaziorik gabe. Gure eskubideak erabiltzeko eskubidea erauzi digutela salatzen dugu, eta horretarako benetako bermeak eskatzen ditugu.

Lurraldea defendatzen dugu, gure gorputza eta gure bizitza kolektiboa jokoan jartzen diren espazio gisa. Espazio publikoaren *garbiketa politikak* salatzen ditugu, makroproiektuekin eta gentrifikazio-prozesuekin lotuak, desjabetu eta lekualdatzen gaituztenak. Gure gorputza da gatazkan dagoen lehen lurraldea, eta lurraldea defendatzea bizitza, kolektibitatea eta existitzeko baldintza materialak defendatzea da.

Sexu lanaren modu guztiak aldarrikatzen ditugu, lan digitala eta plataformetako lana — eduki-sorkuntza eta pornografia— barne, hierarkiarik eta barne estigmatik gabe. Digitala eta presentziala ezin dira bereizi: komunitatea, antolakuntza eta zaintza bi espazioetan existitu behar dira. Plataforma digitaletan eragindako indarkeriak eta abusuak salatzen ditugu, eta ordainketa bidezkoak, segurtasuna eta aitortza eskatzen ditugu. Putentzako eta sexu langileentzako artea ekintza politiko eta eraldaketa kulturalerako bide gisa berresten dugu: puten istorioak putok kontatzen ditugu, gure bizitzaren artistak baikara. Putentzat aitortza eskatzen dugu akademian, eta espazio horien benetako irekiera. Gizon putoak inplikatzera deitzen dugu, emakume zis eta transen lanaren eta bizitzaren gainean historikoki eraikitako pribilegioak aitortuz.

Familia sozial eta aukeratuen aitortza eskatzen dugu, familia biologiko edo aukeratuen aurkako jazarpenik gabe. Gure seme-alabak eta sare afektiboak eskubideen eta bermeen agendan sartzea aldarrikatzen dugu. Ahizpatasunera dei egiten diegu geure buruei, topaketa honetan eraikitako kontaktu eta sareei eusteko, antolakuntzari jarraipena emateko, elkarrekiko babesa eta zaintza kolektiboa bermatzeko.

Herri zapalduen eta kolonizatuen bizitza, lurraldea eta eskubideak aitortu eta defendatzen ditugu, borroka honen funtsezko parte direla berretsita. Kontinenteen arteko nazioarteko batasunaren beharra berresten dugu, Latinoamerikaren, Hego Pazifikokoaren eta Hego Asiaren arteko loturak indartuz. Testuinguru zehatz eta premiazkoak daude, hala nola Kubaren aurkako blokeoa eta Venezuelako egoera, eta gure laguntza eta nazioarteko elkartasuna adierazten ditugu.

Gure antolakuntza sostengatzen duten leloak eta oroigarriak berresten ditugu: eskubide integralak ez dira negoziagarriak; omenaldiak bizirik gaudelarik egin behar dira; *puta-kuota* bazterten dugu, konpromiso superfizial gisa ulertzen baitugu. Motibazio puntaletik harago, iraunkortasuna mantentzeko konpromisoa hartzen dugu, antolakuntzak denboran bizirik iraun dezan.

Azkenik, erantzukizun kolektiboko eta konpromiso politikoko ekintza moduan, baieztatzen dugu manifestu hau adierazpen publiko eta bizia dela. Ez da salaketa edo posizionamendu dokumentu hutsa, baizik eta estatuak, nazioarteko erakundeak, mugimendu sozialak eta gizarte osoa interpelatzen dituen konpromiso partekatua; baita gu geu ere, subjektu politiko antolatu gisa.

Adierazpen honek gure borondatea adierazten du modu artikulatuan aurrera egiteko, gailur honetatik harago, sexu langileen eskubideen, duintasunaren eta bizitzaren defentsa irmoan, baita hemen adaierazitakoak benetakoak, iraunkorrek eta atzeraezinak izango diren eraldaketak eragin ditzaten beharrezko aliantzak, borrokak eta ekintzak denboran mantentzekoa ere, agintean dauden gobernuak edozein direla ere.